



## Zinema eta telebista

# Noiz aukeratu batua eta noiz euskalkiak?

Abenduak 8, Durangoko Azokan, Irudienean, lau mahaikide bildu dira galdera horri erantzutera. Olatz Beobidek, Jon Garañok, Patxo Telleriak eta Paul Urkijok ikus-entzunezkoetan bataren edo bestearen alde egiteko hainbat arrazoi azaldu dituzte. Egia esan, euskararen molde bat eta bestea ez dituzte mutur banatan jarri, borrokan, nahasian ere erabiltzen dituzte haien lanetan, eta batik bat fikziozko lanetan, jolas egiteko erreminta bikaintzat dituzte.



**Onintza Irureta Azkune**

@oirureta

Jon Garañok, *80 egunean*, *Loreak* eta *Handia*-ren zuzendariak dio joera handiagoa izan duela euskalkietarako batuerako baino. Hala ere, uste du euskalkia baino euskalkiaren eta batuaren arteko hizkera egiten duela jende askok, batez ere gazteek. Beraz, bataren eta bestearen arteko marrarik ez du jartzen. Askotan, bien arteko aukeraketan aktoreak izan du garrantzia. Hura nola moldatzen den hobeto, nola ateratzen zaion naturalago, hala egin du filman. Beste kontu bat da *Handia* pelikula, XIX. mendean kokatu baitute. Ez dute orduko Tolosaldeko hizkera erabili, orduan Altzon nola hitz egiten zuten ez baitaki-

gu, ikusleei sinesgarri egiteko moduko hizkera erabili dute. Hala ere, aktorea beti erdigunean, esaldiren bat naturalago atera bazaio batuan, bada horrelaxe mantendu dute.

Patxo Telleriak ez du gogoko euskalkien eta batuaren arteko banaketa. Euskaldunberria izanik berak euskalkian, bilboeraz, egiten duela dio, probokazio tonuan. Bi filma zuzendu ditu euskaraz (*Igelak* eta *Bypass*) eta batuan egin ditu. Haren ustez, ikus-entzunezko fikziozko lanetan hiru erregela bete behar dira hizkuntzari dagokionez: ulergarritasuna, adierazkortasuna eta sinesgarritasuna.

Azken terminoa azaltzeko adibide bat jarri du. Lubis pertsonaiak (*Soinujolearen semea* filmaren gidoia prestatzen ari da Telleria) Bernardo Atxagaren nobelan euskara batuan hitz egiten du, baina filman haragizko pertsonaia bihurtzerakoan ez da sinesgarria Asteasuko morroiak batuan egitea, bertako hizkera hartu behar du. Eleberrian sinesgarri dena, agian filman ez da batere.

Paul Urkijok martxoaren 2an estreinatuko duen bere lehenengo film luzearen esperientzia kontatzea nahikoa izan du mahai-inguruko galderak erantzuteko. *Errementari* pelikula historikoa eta fantastikoa da. Historikoa den al-



Ezkerretik eskuinera 'Errementari'-ko, 'Eskamak kentzen'-eko, 'Handia'-ko eta 'Igelak'-eko fotogramak.

detik, ikus-entzuleei sinetsarazi behar die XIX. mendean kokatuta dagoela. Euskara zaharraren kutsua izan behar zuela uste du, eta hala, desagertuta dagoen arabarra erabili du lanean. Sinesgarria bai, baina ahaztu gabe fantastikoa dela, genero horrek lengoaiarekin askatasun handiz aritzeko, jolasteko, aukera handia ematen zion. Muga bakarra, ulergarritasuna. Filman denetarik dago: desagertutako arabar euskalkiaren tankerako euskararen egiten duten arabar xumeak, modu jantziagoan eta hiritarragoan hitz egiten duen diputazioko administraria, eta Atauneko eran hitz egiten duen Patxi Errementaria. Deabruek batuan egiten dute, euskara jantziaren eta esaldi apokaliptikoak jaurtiz. Hizkuntzaren testuren bidez pertsonaiei kolorea ematen die Urkijok.

Olatz Beobideren iritziz, aukeratutako hizkerak balio behar dio ikusleari istorioaz gozatzen, eta istorioan sartzen eta ez ateratzen. Gertukoa egin behar zaio, eta era berean, ezin du esan ikusleak, "hor zer esan du?". *Eskamak kentzen* teleserieko zuzendaria da bera eta lan hori du buruan hori kontatu duenean. Aktoreek haien hizkeran hitz egiteko askatasuna izan zuten eta aldi berean sinesgarria izan behar zuen, zeren ak-

tore denak ez ziren mutrikuarrak, baina istorioa Mutrikun zegoen kokatuta eta eskabetxerak Mutrikukoak ziren.

Hizkera bat edo beste aukeratzera-koan laurak daude ados sinesgarritasuna oso kontuan hartu behar dela, hala ere, Garañok gehitu du sinesgarritasunari garrantzia neurrian eman behar zaiola. Adibide bat kontatu du azaltzeko. *Loreak* filma ikusi zuen jende dezentek esan omen zion ez zela sinesgarria pertsonaia guztiek beti euskaraz egitea eta film osoa euskaraz izatea: "Egia da, ez gara beti eta denean euskaraz aritzen. Baina *Vacas* filma gaztelaniaz ikusteko arazorik ez daukagu. Amerikarrek *Cleopatra* ingelesez egiten dute eta sinesgarria egiten zaigu".

### Fillogoa, "lagun jakintsu" hori

Soinu teknikaria moduan, hizkuntza aholkularia, hizkuntzalaria edo dena delakoa alboan izaten duten galdetu zieten, baita beti aholkularirik egokienak ote diren ere. Olatz Beobide *Goenkale*-ko zuzendari izan zen eta berak euskara arduradunen oroitzapen oso ona du. Ez

ditu komisariotzat, baizik eta ahozko-tasunari ahalik eta etekin handiena aterra nahi zioten figura oso baliagarritzat ditu. Jon Garañok "lagun jakintsua" deitu dio figura horri. Beti dute hizkuntzaz asko dakien bat alboan eta *Handia*-ren kasuan Altzoko beste batekin ere aritu dira lanean. Garrantzitsuak direla dio, ziurtasuna ematen dutela. Horrek ez du esan nahi beti haiek esandakoa betetzen dutenik, baina gehienetan bai, "lagun jakintsuaren" esana onartzen dute.

Patxo Telleriak beti bizkarrean darara filologoa, bera baita Filologian lizentziatua: "Horregatik ez daukat sinesmen handirik filologoengan". Filologoa izatea (edo behinik behin titulua edukitzea), ez dela hainbestearino dio eta ez dakielaz zenbaterainoko bermea izan den bere sormen ibilbidean. Filmak batuan egin zituzenez, behar berezirik ez zuela sentitu dio.

Urkijok erroldaje guztietan ondoan izan du Gorka Lazkano, aktoreen esaneñ adi-adi, Arabako hizkera galduaren erreprodukzioa kontrolatu nahian. Lazkanoz gain Koldo Zuazok lagundu die desagertutako euskalkia biziberritzeko abenturan. *Errementari* filmaren zuzendariarentzat ezinbestekoak izan dira "lagun jakintsuak". ■

BABESLEA: HONDARRIBIKO EUSKARA ZERBITZUA



Hondarribia  
euskaraz bizi



Hondarribiko Udala

